

azpeitianzer?

udal aldizkaria 141. zenbakia
2011ko uztaila



Elkarlanerako ateak zabalik

Udal Gobernu berria lanean jarri da eta adostasunak lortzeko
lankidetzaz izango du bidelagun

ale honetan zer?

- 3 Telefono interesgarriak
- 4 Erabakiak eta antolaketa
- 5 Proposamenak eta kexak
- 6 Munoaundi
- 7 Oinezbusa
- 8 Elkarriketa
- 12 Motxean
- 14 Bisita gidatuak
- 15 Agenda
- 16 Saninaziyuek

Argitaratzailea: Azpeitiko Udala
Egilea: Prentsa bulegoa
Argazkiak: EREGI, Euskara eta Komunikazioa

Diseinua: EREGI, Euskara eta Komunikazioa
Ale kopurua: 7.000
L.G: SS - 1148/91

Azpeititik kanpo bizi
arren, zure etxean jaso
dezakezu Azpeitian Zer?
aldizkari hau posta bidez.
Egin eskaria 943 15 71 85
(Alkatetza) telefonoan.



telefono interesgarriak

Zentralita	943 15 72 00	Euskara Patronatua	943 81 45 18	Bailarako Nekazari	
Alkatetza	943 15 71 85	Udal Euskaltegia	943 81 19 47	bulegoa	943 81 24 85
Idazkaritza	943 15 71 98	Lapatx Zabortegia	943 15 18 75	Enplegu bulegoa	943 15 03 00
Kontuhartzailetza	943 15 71 89	Azpeitia Lantzen S.A.	943 15 71 83	1. Epaitegia	943 02 51 91
Hirigintza	943 15 71 91	Ingurugiro Etxea		2. Epaitegia	943 02 51 92
Gizarte Zerbitzuak	943 15 71 92	Fundazioa	943 15 17 13	Erregistro Zibila	943 02 51 99
Kultura	943 15 70 68	Tokiko Agenda 21	943 15 70 70	DYA	943 46 46 22
Komunikazioa	943 15 79 82	Kontsumitzaileen		Gurutze Gorria	943 85 32 97
Kirolak	943 15 00 95	Informaziorako bulegoa	943 15 71 93	S.O.S. Deiak	112
Parekidetasuna	943 15 79 28	Baigera I	943 81 44 64	Taxiak	943 81 13 07
Iturritxiki Ludoteka	943 15 11 79	Baigera II	943 81 23 89	Urkome	943 81 65 00
Txiki-Txoko Ludoteka	943 15 05 16	Ingurugiro Etxea			
Zapo Txoko	943 15 71 61	Museoa	943 81 24 48	Sexologia zerbitzua	943 15 10 30
Gazte Informazio Bulegoa (GIB)	943 15 71 60			Etxebizitza bulegoa	943 81 66 99
Eguneko Zentroa	943 15 74 96	Alkoholiko Anonimoak	629 14 18 74	Astearte eta ostegunetan	
Liburutegia	943 15 71 95	AL-ANON Alkoholikoen		18:30etik 19:00etara eta asteazkenetan	
Udaltzainak	943 15 13 13	Sendiak	943 47 54 03	12:00etatik 14:00etara.	
Suhiltzaileak	112	Trenaren Museoa	943 15 06 77	Baserritarren produktuen	
Igerilekua	943 81 41 21	Anbulatorioa	943 02 54 00	merkaturatze bulegoa	943 15 10 29
Kiroldegia	943 81 30 69	Larrialdiak	943 02 54 01	Asteartean 10:00etatik 13:30era eta	
Izarraitz Pilotalekua	943 81 25 63	Ertzaintza (Azkoitia)	943 08 37 80	ostegunetan 16:00etatik 19:30era.	

Udal erabakiak

Ekainaren 30ean Udalbatza osoak egindako bilkuran hartu ziren erabakiak hauek izan ziren:

1. 2007ko ekainaren 1 In egindako bilkurako akta onartzea.
2. Udaleko Talde Politikoen osaketaren, bere kideen eta bozeramaileen berri ematea.
3. Udalbatza Osoaren bilkurak noiz egingo diren.
4. Azpeitiko Udaleko Batzorde Berriemaile Iraunkorrak eratzea. Hauen izena eta osaketa.
5. Kide anitzeko organoetan Udal Korporazioko ordezkariak izendatzea.
6. Azpeitiko Udaleko beharretarako liberatuko diren karguak.
7. Udalean duten karguan aritzeagatik, Udalbatzaren kideei eta Udaleko talde politikoen ordainsari eta kalte-ordainak.
8. Gobernu Batzordearen eraketaren, osaketaren eta Alkateordeen izendapenen berri eman.

Udalaren antolaketa erabaki du Udal Gobernuak

Auzoetako harremanak izeneko batzorde berria egongo da legealdi honetan



Ekainaren 1 lean hartu zuen alkate kargua Eneko Etxeberriak eta barne-antolamendua erabakitzen ibili ondoren, ekainaren 30ean egindako lehenbiziko Udalbatzan batzordeak, bertako kideak eta batzordeburuak erabaki ziren.

Hasi berri den legealdiak izango duen berrikuntza nabarmena batzorde kopuruan aurkitzen da. Izan ere, aurrerantzean 12 batzorde izango dira, Udal Gobernu berriak Auzoak izeneko batzordea osatu baitu; "Azpeitiak dituen auzo desberdinei garrantzi berezia eman nahi diegu, sustatu egin nahi ditugu, eta horregatik erabaki dugu batzorde berria osatzea", aurreratu zuen Eneko Etxeberria alkateak.

Hamabi batzorde

Kopuruz, batzorde kopuruak gora egingo du; aurrerantzean 12 izango dira, Auzoetako harremank batzordea osatu dutelako. Honakoak izango dira batzordeak eta batzordeburuak:

1. Hirigintza eta Ingurumena. Eneko Etxeberria.
2. Industria, Merkataritza, Turismoa eta Baserriak. Iñaki Portilla.
3. Zerbitzu Orokorrak. Haritz Epelde.
4. Langileria eta Antolakuntza. Eneko Etxeberria.
5. Kultura eta Gazteria. Imanol Amenabar.
6. Hezkuntza eta Euskara. Mari Jose Iturria (Hezkuntza) eta Ainhoa Beristain (Euskara).
7. Gizarte Zerbitzuak eta Hirugarren Adina. Leire Etxaniz (Gizarte Zerbitzuak) eta Kontxita Martija (Hirugarren Adina).
8. Kirolak. Manuel Unanue.
9. Parekidetasuna. Leire Etxaniz.
10. Ogasuna eta Kontuak. Manuel Unanue.
11. Festak. Mikel Ibarzabal.
12. Auzoetako harremanak. Ainhoa Beristain.

Gizarte Zerbitzuari dagokion batzordearen izena aldatzea ere erabaki du Udal Gobernuak, eta aurrerantzean Gizarte Zerbitzuak eta Hirugarren Adina izena izango du. Neurri honen bidez, hirugarren adineko pertsonek dituzten beharrei erantzun zuzena eta zehatza ematea nahi da.

Gobernu Batzordea eta alkateordeak

Bestalde, Gobernu Batzordea, Eneko Etxeberria alkatearekin batera osatuko duten zinegotziak Mikel Ibarzabal (Bildu), Aritz Epelde (Bildu), Jesus Larrañaga (EAJ-PNV) eta Aitor Aranguren (Hamaika Bat) izango dira, eta alkateordeak ere hauek izango dira, hurrenez hurren.

Pronosamenak. kexak...



Noranzko gabeko aparkalekua

Kaixo. Eroski aurreko aparkalekuan lurreko amarrak pintatzea oso komenigarria da. Noranzkoa markatu gabe dago eta jendea nahi bezala ibiltzen da, jada hainbat istripu gertatu dira aparkaleku horretan norabide ezaren ondorioz, Besterik gabe, agur!

Baserritarrei laguntza

Baserritarrei laguntzeko asteartean eta ostiralean gauzak egiten hasi; txistulariak, musika, altabozak... Herriari eta baserrinari bizitza eman!

Haurrentzat barrera

Iraurgi kafetegiaren alboko garajerako sarrera gainean lorategi moduko bat dago. Lorategi horretara haurrak igotzen dira eta hor barrera bat jartzea nahiko nuke, zeren egunen batean haurren bat eroriko da garajerako aldapara. Eskerrik asko.

Herriko parkerik erabilienetako batean, ISB taberna ondoan dagoena, arrisku handiko 2 gune aurkitzen dira. Bertan, garajeetarako sarrera-irteeren gainekaldetik 2 petril daude, belar, zuhaitzxo eta guzti. Umeak, askotan, jolasean ari direla, beraietara igotzen dira, konturatu gabe bertatik sekulako jauzia dagoela garaje hauetako sarrera-irteeretara. Mesedez, nahiko nuke gune hauetan protekzio batzuk ipintzea jauzi hori nolabait saihesteko. Eskerrik asko.

Garraio publikoa bultzatu

Garraio publiko garbia bultzatuko nuke, Urolako tren berriarekin.

1. Zumarraga-Zumaia ibilbidea berreskuratu (Landeta industrialdea sartuz).

2. Zumarraga-Donostia ibilbidea ere bai (lehen "Talguillo" zena).

Trena delako garbiena, azkarrena, ezinduentzat egokiena etabar.

Txakur kakentzat ontziak

Txakur kakak jaso eta botatzeko ontziak kaleetan. Eskerrik asko.

Arreta zerbitzua arratsalde

Arratsaldez herritarroei arreta zerbitzua eskaini.

Zineko ikuslearen eguna


Kaixo. Nire kexa Soreasuko zineko ikuslearen eguneko ordutegi berriaren inguruan da. Garai batean astelehenetako sesioa gaueko 8tan zen eta orain, ordu eta erdi atzeratu da, 21:30ak arte. Herritarren gehiengoak asteartean lana egiten du eta ia guztientzat ordutegi txarra da hau. Pelikula motz bat gaueko 11tan bukatzen da eta zerbait luzea den pelikula (normalena dena) gauerdira iritsi daiteke edota gauerdia pasatu. Zentzugabeko ordutegia da lanegun baterako eta seguru nago ikusle gutxi izango direla zentzurik gabeko ordutegi honekin. Betiko ordutegira igarotzea proposatzen dut, hau da, 20:00etara. Atzeratzekotan, 20:30ak arte bakarrik atzeratuko nuke, jendeari afaltzeko eta erosketak egiteko denbora emateko. Baina, 21:30ekoa oso berandu egiten da. Eskerrik asko. (Erredakzioan itzulita).



www.azpeitia.net

Sartu zaitez **www.azpeitia.net** udal webgunean

- **Tramiteak eta ordainketak** etxetik egiteko modua eskaintzen dizu.
- **Udal albisteak** uneoro ezagutzeko.
- Zure **kexa, iritzi eta iradokizunak** plazaratzeko.
- Plenoetako **aktak, udal ordenantzak, hiri antolamenduaren plan orokorra** eta beste hainbat dokumentu ofizial kontsultatzeko.



- Herriaren inguruko **informazio erabilgarria** eskuratzeko, ekitaldien agenda eta guzti.

Eta gainera:

- **Sexologia zerbitzua on-line:** hileko azken ostiralero sexologoak zuen kezak on-line erantzungo ditu.
 - **Udal liburutegia:** bertako katalogora on-line sartzeko aukera eskaintzen dizu udal webguneak.
- www.azpeitia.net.** Udala zure eskura, klik batean.



Jesus Agirre, Eneko Etxeberria, Sonia San Jose eta Pello Bastarrika, Intsausti jauregian.

Sarrera eta dorreak agerian uzten saiatuko dira aurtengo indusketetan

Aranzadi Zientzia Elkarteak zuzenduko duen kanpainak XI. edizioa betetzen du

munoaundi herri harresituaren VI. indusketa lanak abian jarri dira dagoeneko. Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Azpeitia eta Azkoitiko Udalek, Iraurgi Lantzen agentziaren bidez, bultzatzen duten kanpaina Aranzadi Zientzia Elkarteak zuzenduta egongo da eta arduradunek agertu dutenez, Munoaundiren sarrera eta dorreak agerian uztea izango da aurtengo asmo nagusia.

Munoaundi Burdin Aroko herri harresitua da eta Azkoitia eta Azpeitiko udalerrien artean dago, Txalintxo izeneko mendiaren ekialdean eta Loiolaren gainean, bertatik Urola bailararen eremu handi bat menperatzen delarik. 2006 urtetik aurrera indusketa arkeologikoak egiten ari dira bertan Aranzadi Zientzi Elkarteko

Historiaurreko kideak, duela 2.500 bat urte bertako biztanleak nola bizi ziren ezagutu eta ezagutaraztera emateko.

“Munoaundiko berezitasuna sarrera da, lehenbizikoz aurkitu baita horrelako herrixken sarrera. Handia da eta ondo eginda dago, beraz, hori berreskuratzea eta ahal bada berreraiki egingo dugu, jendeak ikusteko aukera izan dezan”, aurreratu zuen Sonia San Jose indusketa lanen zuzendariak.

Abuztuaren 6ra bitartean luzatuko dira indusketa lanak eta herritarrek Munoaundi ikusteko aukera izango dute uztailaren 29an. Bisita gidatuan parte hartu nahi dutenek Kukuherri aterpetxeko aparkalekura agertu behar dute 11:00etan. “2.500 urteko altxorra

dugu eta gure arbasoen inguruko informazio zehatza izaten dugu, urtero egiten diren aurkikuntzei eta ikerketei esker. Horregatik, gure eskerrik beroenak Aranzadi elkarteari, Iraurgi Lantzen-i eta boluntario lanetan ibiltzen diren hainbat herritarrei”, esan zuen Azpeitiko alkate Eneko Etxeberriak.

Aurkikuntzak

Munoaundin egin diren indusketa eta azterketa lanei esker, Burdin Aroari buruzko aurkikuntza garrantzitsua egin dira, besteak beste, eskuz egindako zeramika zatiak, ertz zuzenak edo pixka bat irekiak dituztenak eta baita tornuzko zatiak ere. Haien artean tamaina handiko ontzi baten ertz moldaturtua aipatu behar dugu, ziur aski jakiak biltzeko erabili zutena.



Autoak gutxitu, hankak arindu!

Azpeitiko ikastetxeetako ikasle eta langileak ikastetxe desberdinetara oinez era seguruan mugitzeko ekimena martxan jartze aztertzen ari dira

gauregungo haurrak sedentariismoan erortzen ari direla esan da behin baino gehiagotan; gurasoek autoz eramaten dituzte joan behar duten leku guztietara, kalera irten beharrean jolastera etxean gelditzen dira bideojokoetan ibiltzen...

Ohitura txar guzti hauek aldatzeko helburu nagusiarekin, herriko ikastetxeek "Eskola bidea" egitasmoa abian jartzeko aukera aztertzen hasi dira, horrela,

ekimen berri honen bidez, ikasleak eta ikastetxeko langileak ikastetxera oinez ere seguruan mugitzea nahi da, kotxearen erabilera saihestuz.

“Proiektu berritzailearen sorrera Eskolako Agenda 21 ekimenaren baitan kokatzen da”

Proiektu berritzailearen sorrera Eskolako Agenda 21 ekimenaren baitan kokatzen da. Izan ere, amaitu berri den 2010-2011 ikasturtean zehar “Mugikortasuna eta garraioa” gaia landu dute adin desberdinetako ikasleek. Urteko lanak egin ondoren, ikasleak alkatearengana hurbildu ziren hainbat eskaera luzatu eta beraiek hartutako konpromisoen berri emateko, hauen artean oinez edota bizikletaz ibiltzeko konpromisoa agertu

zuten, beti ere, beharrezko baldintzak betez gero.

Hurrengo ikasturtean ere, herriko ikastetxeetako ikasleek gai berdina landuko dute Eskolako Agenda 21 egitasmoan, xehetasun bat gehituz, mugikortasun ereduak dituen ondorioetan sakonduko dute; hau da, sedentarismoa, trafikoak sortutako aire-kutsadura, osasun arazoak... Horregatik jarri nahi da abian “Eskola bidea” egitasmoa eta horretarako Azpeitiko Udalaren laguntza eta baita Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren babesak ere izan eta izango dute.

“Eskola Bidea izeneko egitasmoa 2011-2012 ikasturtean hasteko antolatzen ari dira”

2011-2012 ikasturtean hasteko antolatzen ari badira ere, aurten saiakera desberdinak egin dira. Horrela, Ikasberri Ikastolakoek ekainaren 10ean egin zuten bi gune desberdinetatik abiatuta, Garmendi ingurutik eta Damaso Azkue ingurutik. Lehen Hezkuntzako 1. eta 4. maila bitarteko 47 ikasle inguruk oinez egin zuten etxetik ikastolarainoko bidea eta baita itzulera ere. Ekimenaren oso balorazio positiboa egin dute arduradunek eta helburu gisa, hurrengo ikasturtean zehar behin betirako martxan jartzea espero dute.

Iraurgi ikastetxeak, berriz, ekainaren 22, 23 eta 24an egin zuten froga. Hauek ere bi ibilbide diseinatu zituzten, bata, Ibai-Ondo kaleko autobus geltokitik abiatuta Betharram eraikinerako iritsi zena eta bestea, Sanjuandegiko autobus geltokitik hasitakoa.

Azpeitiko bi ikastetxeek egindako saiakera hauetan, ikasleak geltokietan jasotzen dira eta OINEZBUSEAN (oinezko autobusean) joan dira zaintzaile boluntarioen laguntzarekin. Ikasleak, taldean oinez eta alai egin dute etxearen eta ikastetxearen arteko joan-etorriko bidaia.



elkarriketa



“Herriarren arazoak konpontzeko gaude”

Eneko Etxeberria. *Alkatea.*

Orain arte sindikalgintza eta euskalgintza lanetan burubelarri ibili zara. Orain politikara egin duzu jauzia. Zergatik?

Nagusiki Euskal Herriko egoera politikoak horrela eskatzen duelako. Garai itxaropentsuak bizi ditu Euskal Herriak. Gure herriko gatazka gainditzeko aukera historiko baten aurrean dago. Eta hori erdiesteko ireki den garai berriak ez du atzera bueltarik. Baina bidea egin egin behar dugu. Herriaren eta herritarren garaia da. Guztiona. Eta bide horretan argi ikusi dut orain arte politika munduan ibili ez banaiz ere pertsonalki jauzia emateko garaia zela. Bildurekin ikusi genuen esparru aurrerakoi eta abertzalea biltzeko aukerak parez pare ireki zirela eta ilegalizazioagatik esparru hori ordezkatu gabe egotea atzerapauso handia zela. Egoerak konpromiso

pertsonal hau hartzera bultzatu nau.

Eta jada alkate zara. Zein da zure lehen balorazioa?

Maila pertsonal zein profesionalean eskuartean nituen hainbat proiektu geldiarazi egin beharko ditut dudana erantzukizunak buru belarri alkate lanetara murgiltzea eskatzen baitit. Jada alkate bezala, harritu egin nau alkateak duen botereaz. Udaletako antolaketa oso hierarkikoa da eta dena alkatearen eskuetatik pasatzen da. Udal horizontalago eta herritarrei irekiago izango den antolaketa eraikitzea ezinbestekoa da. Kudeaketan aldaketak diseinatu beharko ditugu, Udal gardenago eta efizienteagoa egiteko.

Zein da udal-langileriaren inguruko inpresioa?

Oso inpresio ona. Besoak zabalik hartu gaituzte eta guk gure aldetik jarrera hori eskertu nahi dugu. Udal lan taldea kontsolidatutako langileek osatzen dute eta gehienak esperientzia handikoak dira. Ordezkaritza politikoak lau urtean behin aldatu egiten dira, baina langileak hor jarraitzen dute. Alegia, arloz arlo beraiek ezagutza eta esperientzia handia pilotzen dute eta maila horretan Udaleko kudeaketan oinarritzeko tresna dira.

Alkate izanda nola aldatu da herritarrekin zure harremana?

Asko aldatu da noski. Alkate izanda herritar asko hurbiltzen zaizkizu bere iritzia eta arazoak esatera. Garrantzitsua da alkatea herritik eta herritarren arazoetatik hurbil egotea. Herriari urrun geratzen zaizkion karguak izan beharrean herritik hurbil egon nahi dugu. Herriko egune-



roko arazo eta beharrak gertutik bizi nahi ditugu. Baina arazoak kalean modu pertsonalizatuan tratatu baina Udaleko egitura da herriari ireki behar dioguna. Gakoa Udaleko antolaketa osoa herriari ireki eta herritarren mesedetan egituratzean dago.

Zure ustez, gaur egun, zein da Azpeitiko arazo nagusia?

Krisi ekonomikoa eta bere eraginak. Azpeitiar asko gaizki ari dira pasatzen. Egoera zailtan murgilduta ditugu hainbat familia. Honek kezkatzen nau gehien.

Zer egin daiteke langabeziaren inguruan?

Udalak, berez, ez du gai honetan eskumenik. Bi alorretan bultza dezakegu, soilik. Bata, lur antolaketan, enpresak udalerrian geratzeko edo bertara etortzeko lurak prestatuz. Bestea, enplegu sustapenaren bitartez, tresna garrantzitsuena Iraurgi Lantzen delarik.

Nola egingo diezue aurre sortutako arazo sozialei?

Alde batetik, atal honetako aurrekontuak gehituko ditugu. Beste ataletatik dirua

bideratuko dugu azpeitiarrei laguntzeko. Bestetik, saila bera indartzea nahi dugu. Eta gizarteko beharrei egokiago erantzuteko hobekuntzak txertatu.

Hasi berri den legealdi honetan zehar adostasunak bilatzen saiatuko zaretela esan duzue.

Begira, gu ez gara alderdikieretan ibiliko, ez gara alderdien ika-mikatan sartuko. Guk herritarrei zor diegu gure esfortzu osoa. Gu herritarren arazoak konpontzeko gaude, eta horretara jarrita gaude lehen minututik. Politika ulertzeko modu bat da; politikari berriz prestigioa ematea nahi dugu, politikak herritarren arazoak konpontzeko. Horregatik, guk adostasunak bilatzen saiatuko gara alderdiekin, eta noski herritarrekin. Jaso dugun gehiengoa arazoak konpontzeko da eta zalantzarik ez dezala izan inork, gu arazoak konpontzen saiatuko gara.

Eta horretarako nola antolatu duzue Udala?

Alde batetik, Azpeitiko Udalean gutxitan pasatu den bezala, Gobernu Batzordean oposizioko talde politiko guztiak ordezkari izango dute eta bestalde Udaleko batzordeak irekiak izango dira Honela batzordeetara alderdi bakoitzari nahi dituen ordezkari eta zinegotziak emateko aukera ahalbidetu diegu. Bestalde batzordeak irekiak izatearekin herritarrei ere bertan parte hartzeko aukera irekitzen diegu.

Batzordeak zazpitik bost pertsonetara igaroko dira. Zergatik?

Dirua aurrezteagatik. Aipatu dudan bezala batzordeak irekiak izango dira eta alderdi bakoitzak nahi duen ordezkari kopurua emateko aukera izango du. Baina emaitza formala berdina izango denez, bostekoak izango dira, nahiz eta zenbait batzordetan batzordekide kopurua berraztertze-ko irekita gauden. Neuri honekin, lau urtetan gutxienez 70.000 euro aurrezte- pentsatzen dugu. Bestalde, batzordeetara edota Udalbatzetara joateagatik batzarki- de eta batzordeburuek irabazten zutena gehiegizkoa iruditzen zitzaigun, horrega- tik ordainsaria %35 jaitea erabaki dugu, 230.000 euro aurreztuz. Gainera, apustua garbi dugu, ordainsari hauek murrizten

joatea. Guztira, 300.000 euro aurreztuko ditugu. Bokaziozko politika nahi dugu egin, ez dugu politikaz bizi nahi.

Liberatu kopurua eta soldatak ezartzerakoan EUDEL udalen elkarteko irizpideak erabili al dituzue?

Ez. Gehiegizkoak iruditzen zitzaizkigun bai liberatu kopuruari begira bai soldatei begira ere. EUDEL-en arabera Azpeitiari 4 liberatu dagozkion arren, guk 3,3 izango ditugu, bost pertsonetan banatuta. Bestalde, EUDELek ezartzen dituen soldatak ezarriko bagenizkio geure buruari 259.918,53 euroko gastua suposatuko luke herriarentzako. Guk erdia gastatuko dugu, 139.000 euro hain zuzen, eta urtero liberatuen soldatetan 120.000 euro inguru aurreztuko ditugu.

	EUDEL	AZPEITIA
Alkatea	70.248,25 €	39.000 €
Liberatua	63.223,43 €	30.000 €
Liberatua	63.223,43 €	40.000 €
Liberatua	63.223,43 €	20.000 €
		10.000 €
Guztira urtean	259.918,53 €	139.000 €
Lau urtetan	1.039.674,10 €	556.000,00 €
AURREZTEA	483.674,10 €	

Herriko taldeekin ere hasi zarete harremanetan.

Hasiera hasieratik nahi ditugu bidelagun. Alkate kargua hartu nuenean auzola- nerako deia egin nuen, baina ez nuen itxurak betetzeko egin, benetan sinesten nuelako, dugalako baizik. Urte luzeetan herriaren alde ehunka herritar eta taldek musu-truk egin duten lana izugarria izan da eta gaur egungo Azpeitia ezin daite- ke ulertu beraiek egin duten ekarpenik gabe. Beraien lana goretsi eta aurrera begira Azpeitiaren eraikuntzan bidelagun nahi ditugu. Gaur bertatik hasita. Hone- la herriko talde guztiak batzar batetara deitu genituen beraien lana errekonozitu eta elkarlanerako gonbitea luzatzeko. Batzarrak eduki zuen asistentzia eta par- taidetza aberatsa ikusita etorkizunera be- gira egin nahi dugun bidea baikortasunez ikustera eramaten gaitu. Bejondeizuela!



Boluntario lana eskertuz

Udal Gobernu berria herriko talde eta eragile guztiekin bildu zen Sanagustinen

herriko talde eta eragileek Azpeitiaren alde boluntario bezala egiten duten lan guztia eskertzea eta aitortzea. Hori izan zen Udal Gobernu berriak herriko talde eta eragileekin uztailaren 13an egindako bileraren helburu nagusia.

Eneko Etxeberría alkateak adierazi zuenez, Udala eta herritarren elkarlanerako bide berri bat zabaltzea espero dute aurrerantzean. “Taldea bakoitza, Azpeitiko herriak zuen hutsune bat betetzeko sortu edota mantendu duzue bizirik. Eta

“Ezin dezakegu behar den tamainan eskertu, zuetako bakoitzak Azpeitiko herriaren alde egiten duzuen boluntario lana”

guztiok, Azpeitia hobeago baten alde diharduzue lanean. Ezin dezakegu behar den tamainan eskertu, zuetako bakoitzak Azpeitiko herriaren alde egiten duzuen boluntario lana”.

Herritarren parte-hartzea ezinbestekotzat jotzen da Udal berrian eta partaidetza hori aktiboa izan dadin, Udalak bitarteko ugari eskainiko dituela aurreratu zuen alkateak: “Azpeitiko Udaleko ateak parez pare ireki nahi dizkizuegu. Zuen iritzi, kezka eta ekarpenak behar beharrezkoak



Udal Gobernuako zinegotziak Sanagustinen egindako bileran.

ditugu Azpeitiaren eraikuntzan. Azpeitiko Udalarekin eskuz esku lan egitera gonbidatu nahi zaituztegu, bakoitza berean baina denok batera. Beraz, Udaleko bitarteko desberdinak zuen esku jarri nahi ditugu herriko talde eta herritarren parte-hartzea bermatzeko”,

Horrela, herriko taldeen eta Udalaren elkarlana bermatzeko jarriko diren bitarteko desberdinak honako hauek izango dira:

- **Parte-hartze mahaiak:** Proposatzen den demokrazia parte-hartzaile egitasmoaren oinarritzko guneak dira, arloetako diagnostiko eta lehentasunen identifikaziotik abiatuta Azpeitiko egungo eta etorkizuneko marrazkia

egiten lagundu eta proiektu ezberdinen gauzatzea eta arrakasta ziurtatzen dutenak.

- **Auzo-alkateak:** Auzoetako batzarrak bultzatzea gain, auzo-alkateen sorrera bultzatu nahi da auzo urrunduetan. Batzarretan landuko dira gai eta lehentasunak eta auzo-alkatea arduratuko da Udalarekin harremanak izaten.

- **Herri galdeketak eta ideien aukeraketa** arautuko dituen Udal Ordenantza onartzea: Herri galdeketak (proiektuen izaera zalantzan jartzen denean) eta herri aukeraketak (izaera zalantzan jarri gabe, alternatiba ezberdinen aukera egin ahal izango denean) arautuko

dira. Udalbatzaren gehiengoak edo herriko erroldaren %25ak herri galdeketa kasuan eta %10ak herri aukeraketan kasuan hala eskatuta, gauzatu ahal izango dira.

- **Alde Zaharra:** Alde Zaharrari begira egitasmo oso bat proposatzen da. Bereiziki bertan merkatarik elkartek, bertako bizilagunak, kultur mahaia, tabernariak zein gaztetxeak parte hartzea proposatzen da.


- **Aurrekontu eta sistema parte-hartzailea:** Diseinatu egin behar da eta Mondragon Unibertsitatea eta Innobasque-rekin hitz egin da dagoeneko azterketa egiteko, sistema gardenagoa izateko zein aukera dauden jakiteko.

Lanerako aukerak eskainiz



azpeitiko Udalak eta Gureak elkarlanerako hitzarmena sinatu dute Atzegik eta Gureak iaz abian jarritako Pauso Berriak proiektuaren baitan. Pauso Berriakekimenaren helburu nagusia adimen urritasuna duten pertsonen lan mundura sartzeko aukerak eskaintzea da eta Udalak sinatutako hitzarmenari esker, Ander Alberdi azpeitiarrak igerilekuan jarraituko du lanean. Alberdik adierazi duenez, "oso gustura" dago igerilekuan lanean eta proiektuaren arduradunen esanetan, "igerilekuko langileek eta erabiltzaileek honelako pertsonen dituzten gaitasunak ezagutzeko aukera bikaina da".

Sanagustin osatua



Sanagustin kultur gunea guztiz osatuta ari da lanean. Aurkezpene ekitaldia uztailaren 22an egin zen eta herritar ugari bildu zen bertan, ekitaldiaz eta ondorengo mokadutxoaz gozatu eta erai-kinean jarri den taberna zerbitzua ezagutzeko. Kultur Mahaiko Ihin-tza Agirretxek eta Alex Silvak eta Eneko Etxeberría alkateak hitz egin zuten aurkezpenean. Sanagustin kultur gunearen kudeaketa lehiaketa publikora atera zuen Udalak apirilean eta Kultur Mahaiaren kooperatibari adjudikatu zion, Kultur Mahaia bakarrik aurkeztu ondoren. Horrela, Kultur Mahaiak kudeatuko du Sanagustin, eta Udalarik alokairu bat ordainduko dio.

Indarkeria sexistari, aurre!



gertatu daitezkeen sexu erasoen aurrean jarrera aktiboa izateko eskaera luzatu nahi du Festa Herrikoien Batzordeak eta horretarako, gida berezi bat argitaratu eta etxeetara bidali du. Gida honetan, erasoen aurrean jokatzeko gomendio desberdinak ematen dira eta baliagarriak izan daitezkeen telefonoak idatzita daude. Gainera, telefono hauek agertzen diren orrialdea moztu eta diru-zorroan gordetzeko aukera izango dute Azpeitiko herritarrek. Eskubideak urratzen ari direla ikusten baduzu, esan EZ! Guztion ardura da erasoei aurre egitea.

Bailarako enpresak bat



Urola Erdia bailarako 18 enpresa, 3 hezkuntza zentro, Iraurgi Lantzen eta Azpeitia eta Azkoitiko udaletxeetako ordezkariak hartu zuten pasa den uztailaren 8an Ezagutza Guneak antolatutako IX. Kudeaketa Topaketan. Bertan, Ezagutza Gunea eta Loiola Berrikuntza Fundazioa bat izateko erabakia eta Urola Erdiaren garapenerako Loiola Berrikuntzatik jarraitu beharreko ildo nagusiak azaldu ziren; batetik, enpresa aldetik lehiakortasuna hobetzea eta bestetik, hezkuntza aldetik ikasleak lan mundura sartzea unibertsitateko lehen mailatik hasita.



BISITA GIDATUAK VISITAS GUIADAS

Abuztua-Iraila
Agosto-Septiembre

Doan
Gratis



AZPEITIA - AZKOITIA

Parrokia eta Bakardadearen Kapera ezagutzeko doako bisita gidatuak

Iraurgi Lantzenek antolatutako ekimena abuztuan eta irailean egingo da

asko dira udan atzerriko hainbat leku ezagutzera joango direnak, eta beste asko gure bailara hautatuko dutenak bertako txokoak deskubritzeko. Turista hauen beharrak asetzeko, Iraurgi Lantzen agentziak Azpeitiko Parrokian eta Bakardadearen Kaperan bisita gidatuak prestatu ditu abuztuan eta irailean guztiz doan.

Sebastian Donearen Parrokia XVI. mendeko euskal gotikoaren eredutzat hartzen da eta bere baitan, erretaula aberatsak, Loiolako Ignazioren bataipontea, aldare nagusiko erretaula eta Bakardadearen Kapera gordetzen ditu.

Bereziki, Bakardadearen Kapera nabarmentzen da Azpeitiko Parrokian, Errenazimenduko harribitxiztat hartzen

delarik. Grisaila eran margotutako erretaula eta muralez osatutako kapera, Euskal Herrian estilo honetan ikusgai dagoen eredu bakarra da.

Abuztuaren 4ean hasiko dira bisitak eta irailaren 10era arte iraungo dute, baina egun jakinetan egingo dira, ez egunero. Honako egunetan egin ahalko dira:

Abuztuaren 4, 5, 6, 10, 11, 12, 13, 18, 19, 20, 25, 26 eta 27an.

Irailaren 3, 9 eta 10ean.

Parrokia hiru orduz egongo da zabalik egun horietan, goizez edo arratsalde, eta tarte horretan bi bisita programatu dira. Bisitetatik kanpo, informazioa eta arreta zerbitzua eskainiko da.

Turismo bulegoa

Loiolako Santutegian kokatzen den eskualdeko turismo bulegoa udako ordutegia du. Iraurgi Lantzen S.A.ko turismo sailak kudeatzen duen guneak ordutegi zabala izango du irailaren 30era arte:

- **Astelehenetik larunbatera: 10:30etik 14:00etara eta 15:30etik 19:00etara**
- **Igandeak: 10:00etatik 14:00etara**

Bestalde, 2011 urteko lehen sei hilabetekoan izandako bisitarien kopurua 5.800 pertsonetakoa izan dela aurreratu dute arduradunek. Informazio gehiago behar duenak www.urolaturismo.net webgunea bisitatu edo 943 15 18 78 telefonora deitu dezake.

agenda

ABUztUA

1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30	31				



4, osteguna

BISITA GIDATUAK

Parrokia eta Bakardadearen Kapera
16:30ean eta 18:00etan

5, ostirala

Munduko Gazte Kristauen Topaketa
Lekua: Loiola

BISITA GIDATUAK

Parrokia eta Bakardadearen Kapera
16:30ean eta 18:00etan

6, larunbata

Munduko Gazte Kristauen Topaketa
Lekua: Loiola

BISITA GIDATUAK

Parrokia eta Bakardadearen Kapera
11:30ean eta 13:00etan

7, igandea

Munduko Gazte Kristauen Topaketa
Lekua: Loiola

10, asteazkena

BISITA GIDATUAK

Parrokia eta Bakardadearen Kapera
16:30ean eta 18:00etan

11, osteguna

BISITA GIDATUAK

Parrokia eta Bakardadearen Kapera
16:30ean eta 18:00etan

12, ostirala

BISITA GIDATUAK

Parrokia eta Bakardadearen Kapera
16:30ean eta 18:00etan

13, larunbata

BISITA GIDATUAK

Parrokia eta Bakardadearen Kapera
11:30ean eta 13:00etan

18, osteguna

BISITA GIDATUAK

Parrokia eta Bakardadearen Kapera
16:30ean eta 18:00etan

19, ostirala

BISITA GIDATUAK

Parrokia eta Bakardadearen Kapera
16:30ean eta 18:00etan

20, larunbata

BISITA GIDATUAK

Parrokia eta Bakardadearen Kapera
11:30ean eta 13:00etan

ZINE EMANALDIA

Soreasu antzokia-16:30, 19:30 eta 22:00

21, igandea

ZINE EMANALDIA

Soreasu antzokia - 16:30 eta 19:30

22, astelehena

ZINE EMANALDIA

Soreasu antzokia-16:30, 19:30 eta 22:00

25, osteguna

BISITA GIDATUAK

Parrokia eta Bakardadearen Kapera
16:30ean eta 18:00etan

26, ostirala

BISITA GIDATUAK

Parrokia eta Bakardadearen Kapera
16:30ean eta 18:00etan

27, larunbata

BISITA GIDATUAK

Parrokia eta Bakardadearen Kapera
11:30ean eta 13:00etan

ZINE EMANALDIA

Soreasu antzokia-16:30, 19:30 eta 22:00

28, igandea

ZINE EMANALDIA

Soreasu antzokia-16:30, 19:30 eta 22:00

29, astelehena

ZINE EMANALDIA

Soreasu antzokia-16:30, 19:30 eta 22:00

botikatxandak



ALBERDI. Jose de Artetxe 6, Tel.: 943 81 59 74
Abuztuaren 4, 6, 7, 9, 11 eta 12

ARANBURU. Plaza Nagusia - Goiko kalea 2
Tel.: 943 81 13 50
Abuztuaren 1, 3 eta 5

BERISTAIN. Urbitarte auzoa 3, Tel.: 943 81 19 49
Ez du txandak

EIZAGIRRE. Enparan 29, Tel.: 943 81 12 74
Abuztuaren 2, 8, 10, 13, 14, 15, 17, 19, 23, 25, 27,
28, 30 eta 31

JACOME. Garmendi 21, Tel.: 943 08 02 58
Abuztuaren 16, 18, 20, 21, 22, 24, 26 eta 29



Saninaziyuek 2011

ondo pasatu
saninaziyuek
2011



azpeitia
udala